

INFORMAZIO OHARRA

"Hizkuntzarekin jolasean" unitate didaktikoak

- *"Hizkuntzarekin jolasean" unitate didaktikoak ikasleen euskararen erabilera sustatu, ezagutza linguistikoa hobetu eta hizkuntzarekiko atxikimendua sendotzea dute helburu.*

Donostia, 2019ko urtarrilaren 16a. Donostiako Eusko Ikaskuntzaren egoitzan aurkeztu dira gaur "Hizkuntzarekin jolasean" unitate didaktiko berriak. Egitasmoa Eusko Jaurlaritzaren EIMA 2.0 Ikasmaterial digitalak argitaratzeko programari esker garatu ahal izan du Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren markoan.

"Hizkuntzarekin jolasean" unitate didaktikoak, ikasleen euskararen erabilera sustatu, ezagutza linguistikoa hobetu eta hizkuntzarekiko atxikimendua sendotzeko helburuz sortu dira.

Izan ere, hizkuntzen irakaskuntzan umorea eta jolasak, tresna gisa, oso baliabide lagungarriak izan baitaitezke haurren garapenean eta ikaskuntza-prozesuan. Gure errealitate soziolinguistikoan, badakigu ikasle askorentzat, euskara, esparru akademikoarekin eta erabilera formalekin loturiko hizkuntza dela. Sekuentzia hauen bidez, hizkuntzaren alderdi jostagarriagoak ikasleei erakutsi, eta bereziki, ahozkotasuna eta sorkuntza landu nahi dira. Euskara bera, jolaserako tresna bihurtu, eta, gainera, materialen eta umorezko piezen prestaketan zehar edo berauekin jolastean, hizkuntzaren ezagutzan sakondu eta euskararen baliabide linguistikoak ezagutuko dituzte. Eta euskara ikasleentzat jolasgai den neurrian, errazago sustatuko da hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzarekiko izan dezaketen motibazioa ere hobetu egingo da.

Sekuentzia didaktikoen metodologian oinarrituta eta egitura kooperatiboak erabiliz, 3 unitate didaktiko garatu dira, unitate bakoitzak bi sekuentzia eta hainbat jarduera biltzen dituelarik. Honako hauek:

1. Mahai-jolasa
 - Hitzekin jolasean
 - Hieroglifikoak
2. Sare sozialetan
 - Euskara mundiala da
 - Hizkuntzak imitatzen
3. Txistealdia
 - Txisteka-misteka
 - Txouaren ordua!

Lehen unitatean ikasleek mahai-jolas bat eraiki beharko dute, horretarako hainbat hizkuntza-jolas sortuz eta hieroglifikoak asmatuz. Bigarrenengan, sare sozialetarako pieza umoretsuak sortuko dituzte hitz-jolasen mekanismoak erabiliz, hitzen esanahi ezketuak deskubrituz eta istorio barregarriak asmatuz. Eta hirugarrenengan umore-jaialdia antolatu beharko dute txisteak edo umorezko esketxak kontatuz eta antzetzuz. Guztia, beti ere, modu interaktiboan, parte-hartzailean eta ludikoan bideratuz; talde-lanean, alegia. Izan ere, unitate hauen helburu nagusia ikasleek eta irakasleek ondo pasatzea eta ingurukoei ondo pasaraztea baita.

Jardueraz-jarduera, ikasleek helburu horietara iristeko materialak, proposamenak eta aholkuak izango dituzte, eta baita ikus-entzunezko materialak ere: Antton Telleriaren aurkezpen-bideoak, hainbat lagunek propio sekuentzia hauetarako grabaturiko bideoak azalpenekin, txisteekin eta umorezko pasarteekin (Iker Galartza, Zuriñe Hidalgo, Julen Telleria, Idoia Torregarai, Kike Amonarriz edo Josune Zabala) eta ETBko hainbat saiotako umorezko esketxak.

Unitateak [EIMA katalogoaren](#) eta Eusko Ikaskuntzaren [Asmoz Fundazioaren](#) web orrietan daude jada eskuragarri, edozeinek erabiltzeko moduan. Webean, ikasleentzako jardueraz eta edukiez gain beste hainbat material aurkituko ditu irakasleak edo interesatuak: unitateei buruzko informazio-atala, egitasmoaren nondik norakoak azaltzen dituen atala (helburuak, metodologia, edukiak...), irakasleentzako gida didaktikoak non jardueraz-jarduera landu beharreko gai eta materialen inguruko xehetasunak eskaintzen diren, eta ikasleek erabili beharreko lan-koadernoak.